


KOSTUEN EGITURA

Edozein proiektu aurrera ateratzeak hainbat gastu egitea dakartza, eta gure enpresa gastu horiei aurre egiteko gai izan beharko da. Gastu horiek hainbat motatakoak izango dira: kostu finkoak, aldagarriak, eskala-ekonomiak eta hedapen-ekonomiak.

Proiektuaren kostu guztiak finkatuko ditugu:

- Kostu finkoak: lokala eta lokalean sortuko diren gastuak (altzariak, ordenagailuak...) izango dira; baita webgunearen hostinga ere, edukiko dugun webguneak gastu batzuk suposatuko baititu.



- Kostu aldakorak: beharko ditugun lehengaiak, erabiliko dugun argia, gure produktua jendeari jakinarazteko iragarkiak...

Kostuak aldatuz joango dira enpresak aurrera egin ahala; hau da, enpresa aurrera ateratzeak gastu gehiago suposatuko dituelako, eta aurrerantzean gastuak aldatuz joango dira, beste behar batzuk asetu beharko ditugulako, hala nola lokal gehiagoren erosketa eta lehengai kantitate handiago baten erosketa.

Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete; beste batzuek, berriz, duten kalitate-maila handiagatik. Gure negozioa, hauen bi arteko nahasketa izango da. Hau da, gure bezeroak nortzuk diren ikusita eta haien baliabideei erreparatuta, prezio baxuko produktu bat izan beharko da. Hala ere, prezio baxukoa izan arren, kalitate-maila handiko produktu bat izango da.